

Itxialdiarekin egin diote kontra itxierari

Lagun etor gurekin, denek elgarrekin badugu zer egin. Gu ez gira lotsatzen, etsaia non hazten, han da gudukatzen. Gure odolez (e)ta ondasunez, gure izaitez dirade gosez. Elkertasunez erakuts hortzak, elkarri josiz buru-gorputzak zioen Guk taldeak “Laborari, langile eta nagusi” abestian, 1977an, orain 37 urte...

Testua eta argazkia:

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

BI EGUNeko ITXIALDIA egin dute TS Fundiciones Zestoako enpresako langileek, lantegia itxi ez dezaten eta beren lanpostuak aldarrikatuz. Likidazioan da dagoeneko enpresa, eta 156 langile geratuko dira kalean. 2013an hartzekodunen konkurtsuan sartu zen eta otsailean eman zuen zuzendaritzak enpresaren itxieraren berri. Orain astebetera arte kontsulta epean egon dira bi aldeek negoziatzen, baina enpresaburuek ez dute proposamen berririk aurkeztu. Apirilaren 21ean bukatutzat eman zuten tarte hori, eta enpresa behin betiko itxiko dute.

Apirilaren 29, asteartea, goizeko 7:20an 60 bat langile Arroako (Zesto) enpresa inguruan daude, urduri, hamar minutuan enpresa okupatzen baitira. Argazkilaria eta kazetariren bat ere haiekin gaude dagoeneko, irudiren bat harrapatu nahian. Behargin batzuek uste zuten ez zutela sartzerik ere lortuko, baina ikusi ditugu taldean barrura sartu eta ateak katez ixten; nerbioso bezain euforiko. Berehala kateatu dira 50 urte inguruko hiru gizon lantegi atariko burdinazko egituraren eta kasko txuri eta urdin batzuk bistartu dira teilatuan; beste batzuk lantegia apaintzen hasi dira: *TS S.O.S.*,

TSko langileak borrokan edo *Eusko Jaurlaritza, hau al da zuen lan politika?* leloak daramatzaten pankartak ageri dira. Lehen helburua beteta: barruan daude. Orain zalaparta egitea tokatzen da.

Goizeko 8:00etarako berria zabaltzen hasi da sare sozialetan, eta inguruko herritarrek gerturatzen hasi dira. Hedabideek ez dute denborarik galdu. Ertzaintzak ere ez. Tentsioa gora doa, badirudi polizia edozein momentutan sartuko dela enpresa husteratzen. Protesta baketsua dela adierazi dute langileek, eta Ertzaintza sartuz gero ez dutela erresistentziarik jarriko, baina Maiazaren Lehenera arte geratzeko asmoz sartu dira, eta ez dizkiete ateak irekiko. Zumaiko eta Zestoako alkateak ere izan dira Zarauzko eta Azkoitiko komisarietako polizia-buruekin hizketan, eta eurek berretsi dute langileek ez dutela ez ezer hautsiko, ez liskarrik sortuko. Hala, maiazaren 1era arte ertzainak lantegiaren inguruan ibili dira, baina interbenitu gabe.

Bi egunez TS fundizio enpresaren bideragarritasuna eta euren lanpostuak defendatu dituzte, langileek barrutik, eta babesa ematera gerturatutako lagun eta senideek kanpo-

tik. Eta langile borrokaren aldarri egunean atera dira lantegitik, mobilizazioetan parte hartu eta, beste askoren artean, euren egoera salatzen.

50 langile kalera, 100 ordu gehiago lan egin...

2012an enpresako zuzendaritzak TSk bideragarritasun falta zuela argudiatuz birmoldaketa plana martxan jartzeko asmoa azaldu zion Enpresa Batzordeari: langileen soldataren %10 jaitsi, langileen %33 EEEn sartu, eta “borondatezko” 22 kaleratze moldatu. Jarrera horren aurrean 2013ko urtarrilean greba mugagabea hasi zuten langileek, bitartean zuzendaritzarekin akordio batera iristeko ahaleginetan. Astebeten buruan, bada, lanera itzuli ziren langileak hitzarmena sinatuta: bi urtez lanpostu guztiak mantendu –langileek hiru urtez mantentzea eskatzen zuten–, enpresaburuek eskatzen zuten %33ko EEEn mantendu –langileek %25 proposatzen zuten–, baina horren ordainetan 2013ko soldata eta aparteko ordainari guztiak egokitzen diren egunetan kobratu –langileak aparteko ordainsari bat kobratu gabe geratzeko prest zeuden–.





Langileek enpresaren teilatu gainean aldarrikatu zituzten euren eskaerak.

Hilabete batzuen buruan bueltatu ziren, baina, langileak borrokara. Beren etorkizuna ilun ikusten zutela, azken hileko soldata kobratu gabe zeudela, eta enpresako zuzendaritza eurekin sinatutako akordioa hankaz gora jartzen ari zela azaldu zuten 2013ko urrian. Enpresa husten ari zirela ere salatu zuten beharginek, T.Sko akzionistena den WEC enpresara eramaten ari zirela tresna eta makina batzuk.

Enpresaburuek TS Fundicione-

sek aurrera jarrai zezan premiazko neurriak hartu beharko zituztela azaldu eta egun batzuetara aurkeztu zioten langileen ordezkari zari bideragarritasun plan berria: 50 langile kaleratzea, geratzen ziren 100 langileen soldadak %25 jaitea eta urteko lanorduetan 100 ordu gehiago sartzea. Hori onartu ezean hartzekodunen konkurtsora sartuko zen enpresa. Langileen ezetzarekin, azaroaren 29an sartu zen konkurtsora TS Fundiciones, eta

epaile batek izendatu zuen administratzailearen esku geratu zen.

Protesta eta mobilizazio hilabeteak izan dira 2014koak T.Sko langileentzat. Manifestazioak, itxialdiak, elkarretaratzak eta prentsaurrekoak antolatu dituzte besteren artean, lanpostuen alde. 2014ko otsailean azaldu zuen, baina, enpresako zuzendaritzak TS ixteko asmoa, eta negoziatorik egon ez denez, likidatu egingo dute. ■

Bi eguneko borrokaren bideoak



Lantegira sartzen

Apirilaren 29an goizeko 7:30ean sartu ziren langileak enpresara. Moxilak sorbaldan eta pankartak eskuan, atekatekin lotuz ekin zioten itxialdiari.



Langileei babes kanpoan

Bi egun ez makina bat herritar eta udal ordezkari hurbildu zen TSra langileei babes emateko. Zestonan manifestazioa egin zuten.



Irteera Maiatzaren 1ean

Langileen Egunean amaitutzat eman zuten euren protestaldia T.Sko beharginek. Enpresatik irteetan herritarren txaloak jaso zituzten.



TALLERES
MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com